

(/)

ERREPORTAJEAK



Xabier Arregi

Ixa ikerketa-taldea. HiTZ zentroa, EHU

Inteligentzia Artifiziala: euskarak bere tokia behar du

2023-01-23

f (<https://www.facebook.com/sharer/sharer.php?u=https://erria.eus/erreportajeak/inteligentzia-artifiziala-euskarak-bere-tokia-behar-du>) **t** (<https://twitter.com/intent/tweet?text=https://erria.eus/erreportajeak/inteligentzia-artifiziala-euskarak-bere-tokia-behar-du>)

Hizkuntzen teknologiak indartsu iritsi zaizkigu. Ez dago esaterik bat-batean heldu direnik, aspaldikoak baitira hizkuntza eta teknologia uztartzen dituzten jakintza-arloak. Aspaldikoak izanagatik, ordea, apenas lortu duten oraintsu arte sektore produktiboen edo, oro har, gizartearen arreta berenganatzerik. Duela hamar bat urtetik hona, ordea, aldaketa izugarria gertatu da. Eztanda moduko bat. Orain, esate baterako, nork ez du itzultzaile neuronalak erabiltzen.



Argazkia. Unplash / Kevin Ku

Hiru faktoreren konfluentziak eragin du indarraldi hau. Batetik, adimen artifizialeko ereduak eta tekniken bilakaerak, zehazki sistema neuronalen eta ikasketa sakonaren errendimenduak; bestetik, datu masiboak, alegia, testu- eta ahots-bildumak eskura izateak, eta, hirugarrenik, konputazio-ahalmena izugarri handitzeak.

Makinek, gaur, primeran itzultzen dute, testuak sortzen dituzte, galderi erantzuten diete, ahotsez esandakoak ezagutu eta erantzun egiten dute. Gaur egun, makinekin hizketan egin daiteke; nonahi eta noiznahi ari gara horrela, maiz konturatu ere egin gabe. Ez bakarrik konputagailu, tablet edo mugikorrekin, ez bada autoarekin, hozkailuarekin, telebistarekin, laguntzaile birtualekin, edo auskalo zer trasterekin. Makinak hiztun dira. Mintzaide ditugu. Solasean aritzen gara hezur-haragizko ez diren zer batzuekin.

Hori horrela da, bai, baina munduko hizkuntza hegemonikoetan da horrela. Munduko hizkuntza gehienek ez dute baliabiderik teknologiaren esparrura egokitzeko. Horregatik esaten da hizkuntza askoren etorkizuna heriotza digitala dela.

«Makinek, gaur, primeran itzultzen dute, testuak sortzen dituzte, galderi erantzuten diete, ahotsez esandakoak ezagutu eta erantzun egiten dute»

Horren guztiaren ondorio sozial eta soziolinguistikoak nabari dira dagoeneko, eta pentsa daiteke gero eta nabarmenagoak izango direla. Bizi al gaitzke euskaraz mintzaide elektronikorik horiek euskaraz ikasten ez badute? Horra galdera. Horregatik da oso garrantzitsua etorkizuneko agertokiak aurreikustea, eta aurrez neurriak hartzea.

Alderdi sozialarekin batera, inpaktu ekonomikoa ere sekulakoa da. Ez da kasualitatea munduko enpresa aberatsenen artean, punta-puntako tokietan, hizkuntzaren teknologia lantzen dutenak egotea, adibidez, Apple, Microsoft, Amazon, Alphabet (Google) edo Meta (Facebook). Cédric Durand ekonomistak, bere “Tecnofeudalismo, crítica de la economía digital” liburuan, gako interesgarriak eskaintzen ditu munduaren digitalizazioak ekarri duena ulertzeko, eta korporazio erraldoien egiteko moduez jabetzeko.

Testuinguru honetan, ez ikusiarena egitea ez da aukera erreal bat. Euskal Herriak, euskarak, bere tokia egin behar du. ‘European Language Equality’ proiektuan argitaratutako txosten batean Europako hizkuntzen baliabide teknologikoak aztertu dira. Horien arabera egindako sailkapenean euskara 25. tokian agertzen da. Aurretik ditu estatu-hizkuntza gehienak, eta parean edo atzetik hizkuntza ez-ofizialak edo gutxituak. Gure egoera soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta, esan daiteke euskara ez dagoela posizio txarrean.

«Testuinguru honetan, ez ikusiarena egitea ez da aukera erreal bat. Euskal Herriak, euskarak, bere tokia egin behar du»

Aurrera begira, txikia izateak dituen berezko zailtasunak gorabehera, badugu Euskal Herrian komunitate teknologiko aski sendoa, bada ezagutza eta gaitasuna. Egin behar dugun bideak ezinbestean oinarritu behar du baliabide irekietan eta publikoetan. Geure tresna propioak garatu behar ditugu, ikerkuntzan inbertitu, agenteen lana koordinatu, ikuspegi kritikoa zorrotzu, eta euskara bezalako hizkuntzen beharretan arreta jarri.

Teknologiak ez gaitu salbatuko. Teknologiarik gabe ez gara salbatuko.

ERRRIA

ERALDAKETARAKO ALDIZKARI POLITIKOA



10.
zenbakia
2022ko abendua
errria.eus

(/pdf/Erria10.pdf)

TWITTER

www.iratzar.eus
[<https://www.iratzar.eus>]

www.sortu.eus
[<https://www.sortu.eus>]